GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD, DEPORTE Y JUVENTUD

DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA, EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

# Barcina Lehendakariak Torres Dulce Estatuko fiskal nagusia hartu du

*Kortesiazko bisitan, Nafarroan azken urtean kriminalitateak izandako beherakada aztertu dute*

Viernes, 16 de marzo de 2012



Nafarroako Lehendakaria Estatuko fiskal nagusiarekin.

Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Lehendakariak Eduardo Torres-Dulce Lifante Estatuko fiskal nagusia hartu du gaur arratsaldean bere bulegoan, eta bertan egon da baita ere Javier Muñoz Cuesta Nafarroako fiskal gorena.

Kortesiazko bisitan, Barcina Lehendakariak eta Torres-Dulce fiskalak Nafarroako Fiskaltza Nagusiaren urteko azken memoria eta Foru Komunitatean azken urtean kriminalitateak izandako beherakada aztertu dituzte.

Horrez gain, memoria horretara bildutako gai zehatzak aztertu dituzte, hala nola delitu ekonomikoak eta Ogasun Publikoaren aurkakoak, adingabeek egindako delituak eta banda antolatuek gauzatutako indarkeria.

Estatuko fiskal nagusia Iruñean dago gaur, Nafarroako Unibertsitateak gonbidatuta.